

## **Trans identitateak Hezkuntza Sisteman txertatzeko gakoak: Kasu azterketa bat**

**Tesiaren egilea:** Olatz Etxebarria Perez de Nancrales

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

**Saila/Institutua:** Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika

**Doktorego-programa:** Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Berariazko Didaktikak

**Jakintza-arloa:** Hezkuntza zientziak

**Tesi-zuzendaria:** Maria Teresa Vizcarra Morales eta Rakel Gamito Gómez

**Tesiaren laburpena<sup>1</sup>:**

Tesi honen oinarria trans errealitateak Hezkuntza Sisteman txertatzeko gakoak identifikatzea helburu duen kasu-azterketa bat da. Paradigma metodologiko kualitatibo, interpretatibo eta kritikoaren barruan kokatzen da, trans pertsonen bizi duten errealitatea salatu eta, aldi berean, aldaketarako gakoak identifikatu nahi dituelako. Horretarako, oinarri teorikoak finkatu eta literatura zientifikoaren berrikuspen sistematikoa burutu da. Hemen, esanguratsuak diren 5 eremu nagusi identifikatu dira: ongizate sozioemozionala, eskola-giroa, irakasleriaren formakuntza falta, sexu bidez segregatutako espazioak eta igarotzea.

Bost eremuen inguruan elkarriketak burutu dira. Batetik, 6 trans pertsonarekin, hiru euskal herritar eta hiru estatubatuar. Lau trans gizonezkoak dira, trans bat emakumea eta bat pertsona ez bitarra. Bestetik, 5 trans adingaberen gurasoak elkarriketatu dira, hiru euskal herritarrek eta bi estatubatuarrek. Lau trans gizonezkoen gurasoak dira eta bosgarrena trans emakume baten gurasoa da.

Horrez gain, Harvard Unibertsitatean egindako nazioarteko egonaldian, Pre-Texts hezkuntza-protokoloa ezagutu eta metodologia horretan trebatzeko aukera izan dut. Dibertsitatea ospatzeko eta inklusioa modu erreal batean lantzeko ematen dituen aukerak direla eta, trans pertsonen normalizazioa ahalbidetuko duen metodologia bezala aurkeztu dugu. Horretarako, metodologia hau Massachusettsko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskola publiko batean erabili dugu, laugarren ikerketa bati bidea emanez.

Ikerketetatik trans pertsonen hezkuntza-eremuan bizi duten egoeraren inguruko ondorioak atera ditugu. Hasteko, trans pertsona askok ez dute hezkuntza-eremua leku seguru gisa bizi, askotan, eremu hau izaten baita etsaitasun handiena bizi duten gunea. Eskola-giroaren inguruko pertzepzioan indar handia dute beren aukerako izen eta izenordainen erabilerak, beren aukerako sexu bidezko espazio segregatuen erabilerak eta irakasleekin izandako harremanak. Nabaria da irakasleriak gaiarekiko

---

1. Tesiaren ingelesezko izenburua: "Keys to incorporating trans identities into the Education System: A case study".

duen formakuntza falta, eta hori zisheteronormatiboa eta bitarra den gizartearen isla da, eskoletan erabiltzen dugun curriculum bezala.

Igarotzea aurrera eramateko momentu eta modu jakin bat ez dagoen arren, hau aurrera eramatea beharrezkotzat jotzen da, bildutako kasu guztietan ondorio positiboak izan baititu, batez ere pertsona hauen ongizate sozioemozionalean; izan ere, trans pertsonen egoera sozioemozionala beren zis kideena baino kaxkarragoa izan ohi da eta. Esan beharra dago joera-aldaketa baten hasieran egon gaitezkeela, jasotako informazioan normaltasun osoz eta beren ongizate sozioemozionalean eragin negatiborik izan ez duten esperientziak ere bildu baititugu.

Pre-Texts metodologiaren inplementaziotik argi geratu da ikasleek gidatzen dutela ikasketa-prozesua, elkarlana sustatzen duela eta ikasleek elkarrengandik ikasten dutela honetarako tarteak eskainiz gero, eta garrantzitsuena, desberdintasunak errespetatuzetik hauetaz disfrutatzerako jauzi kualitatiboa ahalbidetzen duela.